

HILDAKOAK

Tortura eta heriotza

Arregiren kasuaz geroztik izan dira kasu gehiago, Euskal Herrian tortura eta heriotza elkarri lotuta izan daitezkeela adierazten dutenak. Hona hemen horien zerrenda:

1982. ESTEBAN MURUETAGOIENA. Atxilotu eta hainbat egun komisarian egin ondoren, aske utzi zuten medikua. Handik lau egunera hil zen. Forentsearen txostenak heriotzaren eragilea bihotzekoa izan zela zioen, baina irregularitasun ugari atzetan zituzten autopsian.

1983. JOXEAN LASA ETA JOXI ZABALA. Bi errefuxiatu tolosarrak urriaren 16an bahitu zituzten, Iparraldean, eta hiltzeraino torturatu. Ez zen haien berri gehiagorik izan 1995ean Alacanten haien gorpuzkinak identifikatu zituzten arte. 1984ko urtarrilean Alacanteko irrati batera GALen izenean dei anonimoa egin zuten, bi gazte horiek hil zituztela esanez.

1985. MIKEL ZABALZA. Gazte orbaiztarra atxilotu zuen Guardia Zibilak Donostian, azaroaren 26an, eta Intxaurrendoko kuarterelara eraman zuten. Haren gorpua abenduaren 15ean agertu zen, Bidasoa ibaian. Bertsio ofizialaren arabera, ihes egin zuen. Berarekin atxilotu zituztenek, ordean, torturak salatu zituzten, eta Zabalza oso egoera txarrean ikusi zuten Intxaurrendon.

1993. GURUTZE IANTZI. Irailaren 23an atxilotu zuen Guardia Zibilak, eta egun bat geroago hil zen, Madrilén, Tres Cantoseko komisarian. Bertsio ofizialaren arabera, komisariatik ospitalerako bidean hil zen, bihotzekoak jota. Iantziren gorpuak, baina, ubeldura ugari zituen, eta senarrak oihuka entzun zuen komisarian.

1993. XABIER KALPARSORO. Irailaren 23an atxilotu zuten, eta Espainiako Poliziaren esku utzi. Hurrengo egunean oso larri ospitaleratu zuten, Bilboko komisariako leihotik salto egin zuela esanez, eta 26an hil zen. Leihoan ez zuten hatz aztarnarik aurkitu, eta gorpua kokapenagatik ezinezkoa zen leihoa ukitu gabe salto egitea.

XOSE LOIS FERNANDEZ GONZALEZ GRAPOKO KIDE OHIA, LEKUKO ZUZENA

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Xose Lois Fernandez Grapo taldeko kide zela atxilotu zuten. Bizkarrean tiroz zauritu zuten atxilotzean, eta bizi osorako paraplegiko utzi. Carabancheleko espetxe ospitalean zegoen 1981ean, eta Arregirekin egon zen. Hogei urte igarota, oroitzapenak bizi-bizi dituela esan dio EGUNKARIARI.

«Gauza horiek ez dira inoiz ahazten. Deigarria izan zen gauerdian ekarri zutela, deigarria sirenak jarrita ekartzea eta baita ez bakartzea ere. Kontua da hiltzera zihoala, eta komisarian hil ez zedin espetxera eraman zuten, bertan hiltzeko. Haientzat funtsezkoa zen komisarian ez hiltzea; hortik aurrera, bazekiten zenbait gauza jakingo zirela, baina tira...».

«Arregik esan zigun orduak eta orduak eman zituztela bera jotzen»

Arregi ikusi orduko, hil egingo zela agerikoa zela dio: «ETA politiko militarreko kide bat zegoen nirekin eta Arregirekin hitz egin zuen euskaraz. Berehala hasi ginen gauza bat eta beste egiten. Bere nahietako bat dutxatzea zen, baina gorputz hura ikusita ezinezkoa zen».

«Oinen irudia izugarria zen. Sumendi bat ikusten dudako bakoitzean Arregiren oinen irudia etortzen zait gogora. Kraterren itxurako zuloak zituena, sumendi txikiak». Baina oinez gain, gorputz osoaren itxura ere ikaragarria zela dio.

«Ipurdia, izterrak, bizkarra, bularraldea... dena gorputz osoa zuen belztuta eta txikituta. Berak esan zuen orduak eta orduak pasa zituztela bera jotzen. Oso arnas estua zuen eta heriotza zetorkiola bistakoa zen. Praktikantea etorri zen, baina gorputz belztu eta ubeldu hura ikustean indizioa jartzeari uko egin zion, jarri gero berak hilko zuen beldur zen».

Berarekin egon zirenen denboran esker ona besterik ez ziela adierazi dio Fernandezek. «Ahal izan genuen maitasun guztia eman genion bera-

rekin egon ginenean, eta berak oso jokabide maitagarria azaldu zuen. Bere egoera ikusita, oraindik, niretzako animo hitzak izan zituen. Esaten zuen ni okerrago nengoela bizi osorako gorpildun aulkiari utzi nindutelako».

«Hil zenean gertatutakoa salatu behar zela erabaki genuen eta idazki bat egin genuen. Carabancheleko ospitalean gutako militanteak eta ETako ugari zeuden eta senide asko etortzen ziren igandetan. *Tirabolak* antzeko bat hartu eta ziegako leihotik bota genuen idatzia senideek jaso zezaten. Ospitaleak kalea bertara ematen zuen. Jaso zuten eta horrela iritsi zen gure salaketa komunikabide-etara. Hor agerian geratu zen berriz ere tortura. Hiltzeraino torturatu zuten».



GORPUAREN ARGAZKIAK. Joxe Arregi hil eta handik egun gutxira haren gorpu torturatuaren hainbat argazki iritsi ziren zenbait erakunde eta hedabide-etara. Oinak, bizkarra, zangoak eta gorputz osoaren egoera nolakoa zen erakusten zuten argazkiok eta torturaren erabilpena agerian utzi. Argazkiak era anonimoan zabaldu ziren, haien jatorria argitu gabe.

ISIDRO ETXABE URRESTILLA EUSKAL PRESO OHIA, LEKUKO ZUZENA

A.E. | DONOSTIA

Isidro Etxabe, *Zumai*, Arregirekin batera atxilotu zuten. Besoan balaz zauritu zuten arren, komisarian zortzi egun pasatu zituen deklaratu aurretik. Atxilotetako una eta komisariako zenbait pasarte gogoratu ditu Etxabek EGUNKARIAREKIN.

«Lau ginen eta autoan gindoazela gelditzeko esan ziguten. Paperak eskatu zizkiguten eta ikusi ondoren komisariatik pasatzeko esan ziguten datuak baieztatzeko. Komisariara ez gindoazela argi genuen, eta beraz, nire keinuarekin batera ihesari ekin genion, eta tiroketa hasi zen. Ni zauritu ninduten, eta beste hiruek ihes egin zuten. Autora

«Aulki gorpildunean zeramata ikusi nuen, oso itxura txarra zuen»

ninderamatenean ekarri zuten Arregi eta maleteroan sartu gintuzten. Bi hitz egin genituen komisariara bidean.

Komisarian behin baino gehiagotan ikusi zuen Etxabek. «Nik tiroa nuen eta tarte-ka gelatik ateratzen ninduten bertako medikuak ikusteko. Haietako batean Arregi komunera eraman zuten eta pasatzen ikusi nuen gorpildun aulkian. Itzuleran hitz batzuk egin genituen. Oso begiratu okertua zuen, itxura txarra».

Bera ere torturatu zutela

dio, baina tiroa zuelako edo, gutxiago egin ziotela dio. «Ezkerreko besoan nuen tiroa eta bala bizkarreko paletan sartuta. Tiroa nuen tokian bihurkin bat sartzen zidaten zulotik bizi bizian. Gogorrenetakoa mangera batekin oin azpitan jo nindutenean izan zen, bi polizia gainean jarri zitzaizkidan eta hankak zuzen nituela gogoz jotzen zidaten magerarekin».

«Azken egunean ziegetara jaitsi gintuzten hatz aztarnak hartzera. Ni iristean Arregi es-

kuak garbitzen ari zen. 'Zer moduz Joxe?' galdetu nion. 'Gaizki, gaizki' erantzun zidan, eta hori esatearekin batera lurrera jauzi zen. Epilepsia atake bat eman balio bezala jarri zen, gogortuta, hotz hotza eta bitsa zeriola. Ez nuen gehiago ikusi. Gorputza lehertuta zuen, eta begia atara beharrean. Itxura oso txarrean ikusi nuen».

Hil zela jakitean «apurtuta» geratu zela dio. «Lagunak mota askotakoak dira, eta taldean Joxe genuen denok maitatua. Oso jatorra zen, umila eta gogozkoa, jendea ondo jauzten zaión horietakoa. Oraindik ere garai hau iristean beti etortzen zait burura, oso barruan daramat eta ez zait inoiz ahaztuko».